

# Noqua!!

H A M A B O S T E K A R I A

1997ko otsailak 21

Usurbil, 14. Zenbakia



**BADATOR AUTOBIDEA  
ARITZETATIK**



**HILDAKOAK**



1997-02-11  
**Celestino Agirre Aburuza**  
 69 urte.  
 Kaleberri

**JAIOTZAK**

**Aitor Arzallus Sagardia**  
 (97-02-03)  
 Etxebeste kalea

**Anne Ruiz Ulloa**  
 (97-01-29)  
 Bizkarra kalea

**Maikel Pedrosa Moreno**  
 (97-02-02)  
 Santuenea

**Goizane Alegre Esnaola**  
 (97-02-11)  
 Santuenea



**Leire Arregi Irureta**  
 (1997-02-05)  
 Eguzkitzaldea

**Bai, esan?**

- |                          |          |                            |          |
|--------------------------|----------|----------------------------|----------|
| • Udala                  | 37 19 51 | • Taxi geltokia            | 36 21 78 |
| • Udaltzaingoa           | 36 11 12 | • D.Y.A.                   | 46 46 22 |
| • Anbulategia            | 36 20 13 | • Gurutze Gorria           | 27 22 22 |
| • Udarregi ikastola      | 36 12 16 | • Gure Pakea egoitza       | 37 32 28 |
| • Agerialdeko ikastetxea | 36 38 85 | • Gure Elkarte egoitza     | 37 17 51 |
| • Oiardo kiroldegia      | 37 24 98 | • Arrate egoitza           | 36 63 40 |
| • Zumarte musika eskola  | 37 15 94 | • Eusko Tren informazioa   | 47 09 76 |
| • Etumeta euskaltegia    | 37 20 01 | • <b>Noaua!</b> aldizkaria | 36 03 21 |

Usurbilgo Udalak diruz lagundutako aldizkaria

**Dagoeneko 305 usurbildar bazkide ditu Noaua!-k**  
**Zu ere egin zaitez bazkide!**

Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



# Zer irizten?

## Noaua!

Usurbilgo hamabostekaria

**Argitaratzailea:** Noaua!  
Kultur Elkarte. Kale Nagusia,  
37 - 20.170 USURBIL  
(Gipuzkoa) Tlf. eta faxa (943)  
36 03 21. e-mail: Noaua.  
mandio@redestb.es

**Zuzendaria:** Olatz Altuna.

**Kazetariak:** Ainhoa Azpiroz,  
Idoia Torregarai, Josu  
Aranberri, Garikoitz Udabe.  
**Kolaboratzaileak:** Pedro Mari  
Matxain, Nere Amenabar,  
Ines Kamino, Leire Atxega,  
Iñaki Labaka, Iratxe  
Begiristain, Begoña Zubiria,  
Amagoia Mujika, Xabier  
Arregi, Pako Agudo, Alfonso  
Vidal eta Nieves Aranburu.

**Administrazioa:** Arantxa  
Usaralde, Aitor Pikabea eta  
Nerea Kamino. **Erredakzio  
Kontseilua:** Olatz Altuna,  
Garikoitz Udabe, Jose Jabier  
Furundarena, Iñigo Azpiroz,  
Idoia Torregarai, Josu  
Aranberri, Ainhoa Azpiroz,  
Mertxe Olaizola.

**Maketazioa:** Susana  
Martin. **Argazkia:** Joxe  
Antonio Labaien, Juan Luis  
Izeta. **Informatika:** Pili Lizaso.  
**Banaketa:** Mertxe Jimenez,  
Txelo Vidal eta Iker Muguruza.  
**Tirada:** 2.000 ale. **Sukaldaria:**  
Joxe Mari Sarasola

**Lege-Gordailua:** SS-668-96

**ISSN:** 1136-6818

**Inprimategia:** Antza,  
Industrialdea 1 - 2, 20.160  
Lasarte-Oria.

Noaua! hamabostekariak  
ez du bere gain hartzen aldiz-  
karian adierazitako esamen  
eta iritzien erantzunkizunik.

### PORTADA:

**Irubide baino lehenagoko  
bihurgunea, zentral parean.  
Autobide berriarekin al-  
daketak izango dira bertan.**



## Garraioa bai, garraiolarien eskubideak ere bai

**Martxelo Santxez**

### Garraiolaria

**A**urreko asteetan zehar ikusi  
ahal izan dugu (nahiz eta  
batzuei hainbeste ez iruditu eta  
konturatu gabe pasa) zenbate-  
rainoko eragina duen guztion-  
gan garraiolarien sektoreak.

Egun hauetan ikusi dugu nola  
oinarrizko janariak urritzen zih-  
ozen gure ohizko dendetatik  
garraiolarien greba dela eta.  
Hau guztia Administrazioak  
mahai ganean ahaztuta  
dituen eta konponbiderik  
eman nahi ez dien eskaeren-  
gatik gertatzen ari da.

Epe motzean gerta litekeen  
egoeraren aurrean, herritarren  
erreakzioa nahiko alarmista  
izan dela esan dezakegu. Izan  
ere, beharrezkoa baino janari  
gehiago erosi eta supermerka-  
tuak behar baino azkarrago  
hutsik geratu baitira.

Hau grebaren lehen sintoma  
bestirik ez da. Honekin batera,  
lantegi askok beren produkzioa  
bertan behera utzi behar izan  
dute material faltagatik eta  
honek toki askotan lan erregu-  
lazioa ekarri du. Baita gasolin-  
degietako tankeak hutsik gera-  
tzea ere. Honek guztiak Admi-

nistrazioa garraiolarien orde-  
kariekin mahai baten inguruan  
negoziatzera esertzera behartu  
du.

Kontuan izan behar dugu  
garraiolariak gure gizarteko zati  
bat direla. Beste sektoreetako  
langileek beraien lana defen-  
datzeko eskaerak eta ekintzak  
egiten dituztenean (errepide  
mozketak askotan) guk sufri-  
tzen ditugun moduan, besteok  
ere ulertu egin behar duzue  
oraingo egoera. Gu ere gure  
lan baldintzak hobetzeko ari  
baikara borrokan.

Lortuko diren hobekuntzak  
garraiolari guztientzat izango  
direla nahi nuke bereziki aipatu  
(era zuzenean edo ez).  
Horregatik, helburu horiek lor-  
tzeko borroka honetan familia  
hau osatzen dugun guztiok  
parte hartu beharko genuke.

Arazoari irtenbidea azkar bila-  
tuko diogulakoan, guztion ize-  
nean agurtzen naiz. Azken fine-  
an, Administrazioak negoziaketa-  
ren inguruan duen boronda-  
te ezagatik gizarte osoak  
ondorioak sufritzea ere, ez  
baita gure nahia.

# PATRI

## JATETXEA

Eguneko bazkariak  
eta afariak

Nagusia,6  
Tlf 36 27 25

20170 Usurbil  
(Gipuzkoa)

*Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!*

## USURBILGO HORTZ KLINIKA

**FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER  
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA**

Kale Nagusia, 2 1.C4  
Tlf 37 08 78

20170  
USURBIL

# N•U

## Ileapaindegia

MISTOA

Solarium, depilazioa,  
makilajea eta manikura

Aritzeta 2 - 2 1.A  
Telefona: 36 19 51

## ETA ZUK ZER DERITZOZU?

**A**rtileriari zenbat eta buelta gehiago eman, korapiloa, korapiloa haundiagoa egin daiteke. Niri buruan daukadanarekin gauza bera gertatzen zait. Nire akatsa izan daiteke, baina ea zuk zer deritzozun!

Behin, lagun batzurekin hitz egiten ari nintzela, batek "titare" hitza aipatu zuen. Ni lilurata gelditu nintzen, esanahia ez bainekien. Besteak horretaz ohartu eta galdera hau egin zidaten: "ez al dakik titare hitzak zer esan nahi duen ala?" Ezetz erantzun nien. "Normala da, euskaldun berria da!" Ordu ezkeroztik, burura hau datorkit: "hizkuntza batean baten batek hitz baten esanahia ez badaki, beti euskal-

dun berria izango da hiruko erregela jarraituaz. Ez al da hala?

Hiztegia hartu nuen eta "euskaldun" hitzaren esanahian zera aurkitu nuen: "euskara duena". Dena den, denok dakigun bezala, gai hau aztertzeko oso zabala da, baina berria...? Ez al daiteke pertsona ikasle berria izan eta ez euskaldun berria betirako? Berria den gauza bat denborarekin zaharra bihurtzen da. Ni euskaldun berria, noiz arte? Berriz diot, nire akatsa izan daiteke, zuk zer deritzozu?

Lagun batzurekin zenbait eztabaida izan ditut eta zera erantzuten didate: "euskaldun bat duk, euskara jaiotzatik ikasi duena; hi beti euskaldun

berria izango haiz. Horregatik ez haiz gu baino gehiago, ez gutxiago". Eta zuk zer deritzozu?

Tamalez, gizarteak horrelako ohiturak sortzen ditu. Izan ote daiteke gizartearen usadio txarra? Izan ote daiteke gizartearen akatsa? Izan ote daiteke oraindik atzoko ajea pasa gabe nagoela? ETA ZUK ZER DERITZOZU?

**Jon Gallego**

**Bankuen jokabidea eta maileguren inguruko tira-birak aipatzen dituen gutun bat iritsi da gure eskuetara. Sinadurarik ez duenez, ez dugu argitaratuko. Nahi baduzue, izenik gabe argitaratuko ditugu, baina guk beharrezkoa dugu izena egiaztatzea.**

**T**xirikitutik



*Otsalaren 8an Usurbil Zirku erraldoi bihurtu zen. Bertan ikusi genituen pailazoak, gizon indartsuak, emakume bizardunak, Teo eta Txarles, tximuak, gozoki-saltzaileak, trapezistak, tigreak, bala gizon eta emakumea... Horrelako kartelarekin ez da harritzekoa Teo espreski ikuskizuna ikustera etortzea. A ze fauna!*

**TABERNA JATETXEA**



**ANTXETA**

EGUZKITZA, 4  
TEL: 37 03 44  
20.170 USURBIL

**GALARRA GALARRAIO**

\* LUR ONGARRIAK  
\* ZABOR BILKETA  
\* ZISTERNA BEREZIAK

☎ 37 01 46

**ARRALDEGIA**  
**PELLO**


Arizeta Kalea, 1  
Tlf 36 21 64  
USURBIL





## MARTIN ALIRI

Aliri baserrian jaio zen orain dela 73 urte. Baserri lanetan aritzen da baina gazte denboran Salesianosetan lizentziatura atera zuen. Zubietako baserri zaharrenetariko batean bizi da, Alirin eta bertan museo txiki bat du. Gerra garaiko pistola zaharrak, dokumentu zaharrak, ontziak... denetik du han Martinek. Horrez gain, Egin egunkariaren ale guztiak ditu jasota, publikatu zenetik gaur arte.



### Zer gogoratzen duzu gehien zure haurtzarotik?

Txikitan eskolara joaten ginen. Soldaduskara joan bitartean Zubietako eskolan ibili nintzen. Aurreneko maixua Koxme izan genuen, gerra denboran fusilatu zuten tren estazioko jefearen semea.

### Zerbait gehiago...

Bai, garai batean txerriak hiltzen ziren baserrietan eta gero maixuari, erretoreari, beterinarioari txerri muiñak partitzen ibiltzen ginen

### Ikasten kanpoan ere ibili zinen ezta?

10 urterekin Lasartera eraman ninduten, nazional-etara. 11-12 urterekin, berriz, Bartzelonara joan nintzen ikastera, Sarriara. Hau 1935-36an izan zen eta gerra hasi baino 3 egun lehenago itzuli beharra izan nuen, han nazionalak baitzuden. Horregatik ondoren Iruñeako Salesianosetan amaitu nituen ikasketak. Hemen lizentziatu eta soldaduskara joan nintzen.

### Zer iruditzen zaizu gaurko gazteria zuen garai-koarekin konparatuta?

Oraingo gazteria askoz ere aurreratuagoa da, irekiagoa. Gu gaztetan zeharo motzak ginen, eskolara ixil-ixilik joan, etorri eta etxera. Konparaziorik ez dago.

### Zubietako festak nola izaten ziren lehen?

Soldaduskara hurrengo urtean joan behar zutenek antolatzen zituzten festak lehen.

### Soldaduskan urte asko egin omen zenituen.

Bai, lau urte egin nituen. Gerra ondorenean egin nuen eta denbora guztia Loyolan egon nintzen. Usurbil eta Aginagako jende ugariarekin egin nintzen lagun. Trenean elkarrekin batera joaten ginen.

### Zer nolako mugimendua zegoen lehen Zubietan?

Nik soldaduska bukatu nuenean igandetan goizean pelotan aritzen ginen gero hamaitakoa egiteko. Gero arratsaldean Lasartera joaten ginen sagardoa edatera.

### Soldaduska amaitu ondoren baserrian lanean.

Bai, nire ihardunik haundiena baserria izan da. Ikasketak egin nituen, lizentziatura atera ere bai, baina aita zenak bat edo bestea aukeratzeko esan zidan eta baserria aukeratu nuen.

### Ez al zara inoiz aukeraketa horretaz damutu?

Bai horixe. Makina bat aldiz damutu izan naiz. Baserritik ez dago ondo bizitzerik, baina hemen aguantatu dut.

### Zure seme-alabei ikasketak edo baserria aukeratzeko eman diezu?

Nire seme-alaba guztiek karrera egin dute. Semea perito elektronikoa da, alaba zaharrena eta bigarrena funtzionariak eta alaba gazteena administratzailea.

### Parrandak ere egingo zenituen ba?

Ez, ia bat ere ez. Ni parrandazale txarra izan naiz. Etxetik kanpo behin bakarrik pasa dut gaua. Aginagako Lertxundi baserrikoa ezkontzen zen. Soldaduskan nengoenez ezkontzara joan eta gero goizeko 7.30etarako trenean berriz koartelera. Han armario handi batean sartu eta lo egin nuen egun osoan, bazkaltzera ere ez nintzen azaldu.

### Esan digute pisu berezi bat omen duzula.

Berezia ez dakit, baina oraindik etxean dugu nire amak egunero egunero-pisatzen gintuen pisua. Nik ere seme-alabak han pisatu izan ditut.

INTX E EZI K

rtz. 2 Tl. 371 2



## URTINEA LORATEGIA

*Lore eta lore landareak*

San Esteban  
Tlf. 36 22 55

Pintxo eta bokata  
goxo-goxoak

Eguzkitza

## ATXEGALDE



**Zaloe Arnaiz**

### Zaborra goizean atera behar da, ez gauean

**A**spalditik dakigu **Usurbilen** zabor-biltzailea gauetz pasatzen dela. Dirudienez, **Atxegalden** badago hori oraindik ez dakien despistatu bat baino gehiago. **Zabor poltsa gauean** jaisten dutenentzat agian erosoagoa izango da, baina gainontzeko auzokideentzat eta zabor-biltzaileenentzat ez da horrela izaten. Zergatik? Denok dakigu kale-



ko **animaliek janari usaina somatzen** dutenean bertara hurbiltzen direla eta noski, poltsa honetan nahi adina janari lor dezakete. Ondorioz, **goizean zabor tokia** eta bere ingurunea **"zerri" eginda** aurkitzen dugu. Berdin gertatzen da zabor-biltzailea pasa eta beste despistaturen batek basura poltsa orduan uzten duenean. Hau hurrengo goizera arte bertan egongo da animalien tentaldirako. Beraz, ea ba pisikat pentsatzen dugun **basura poltsa bere garaian ateratzeaz**, horrela gure ingurunea txukunago aurkituko baitugu.

Bestalde, **auzoko bi farola hondatu** zirenetik hilabeteak pasa dira. Geroztik, hortxe daude plastiko batekin bilduta, baina ezin esan hori oso segurua denik umeak zer nolako kuriosoak diren jakinda.

## KALEBERRI



**Ines Kamino**

### Lapurreta soinuak kaleberrin

**K**otxeak kalean utzi dituztenak ez dira lasai egon azken asteetan. Batek baino gehiagok **ezusteko bisita** izan du bere **kotxean**. Orain dela bi aste **zenbait lapurreta** izan ziren **Kaleberrin**. Kotxeak indarrez ireki, barrura sartu eta bertatik irрати-kasetak nahiz baliozko edozer gauza ostu zituzten. Kaleberriko lapurreta hauetaz gain, Zumarte musika eskola ondoko kamioi parkinean ere lapurrak ibili dira. **Kamioien gasoil depositoaren tapoiak hautsi eta gasoila lapurtzeaz** gain, kamioiari beren artean komunikatzeko eduki ohi dituzten **irрати-emisoreak lapurtzen** dizkiete. Izan ere, kamioi aparkaleku honetan lapurretak maiz izaten omen dira. Lapurreta hauen ondorioz, zenbait kamioizalek kamioi kabinak beren etxeetatik gertu aparkatzen dituzte.



Ez da denbora asko Korreos ondoko **telefono kabina** erre zutela. Azken aste hauetan bertatik ezin izan da telefonoz deitu baina orain **berria jarri dute**. Oraingoa eta aurrekoa zeharo ezberdinak dira. Berriak ez du aterik, baina **ezindu fisikoek erabili ahal izateko** ohizkoa baino beheago jarri dute telefonoa.

Amaitzeko, ihauterietan Usurbila etorri zen zirkoa ezin ahaztu. Goizean umeek beren trebezia erakutsi zuten, bai tailerretan eta bai oholtza gainean eman zituzten ikuskizunetan. Arratsaldean, berriz, Usurbilgo zirkorearen lehen eta azken emanaldia ikusteko aukera izan genuen. Argi askoren faltan jendeak begiak ongi zabaldu behar izan zituen ikuskizuna ikusteko. Eta gauean...

## KALEZAR



**Pedro Mari Matxain**

### Kalezar zuek uste baino haundiago da

**Z**uek ez duzue jakingo **Z**baina Kalezarko lurra kilometro askotan zabaltzen dira. **Asintxio Elustondoren** "Mendez mende" liburua eskuartean hartu eta **Kalezar** auzoa guda amaitu ondoren, 1892an honela agertzen zaigu: hasi **Bizkartzoko Bentatik, Intxuintxabal, Aritzetako benta,** eta **Txikierdira** arte. Garai hartan 63 etxe, 71 sendi eta 470 bizilagun zituen **Kalezarre**k. Honek esan nahi du **Kalezarko auzoa Irubidetik** datorren errekatik **Arratzain** errekaraino zabaltzen dela. Triste da **Usurbilgo**





herriko agirietan **Luzuriaga** aldeko guztiari **Txikierdi** auzoa izena jartzea, hori **Kalezar** baita aspalditik eta hori ez da kontutan hartzen. **Usurbilgo** herriari eskatzen diot toponimia zaharra onartu eta auzoak lehen zeuden bezala errespetatzea.

**Peña Pagola Elkar-teak** urtarrilaren 6an, errege egunean egin zuen **bere batzara** eta bertan aukeratu ziren **1997-rako presidente eta bokalak**. Presidentea **Joxe Sarasua** izango da eta **Migel Mari Eizagirre**, **Migel Aranzastroke** eta **Joxe Mari Beristain** bokalak. Batzuen txisparekin eta beste batzuen azkartasunarekin ea Usurbilgo pelota aurrera ateratzen duten, premia badu eta.

Bestalde, Patxi Añorga gure artean dugu eta pozten gara Kalezartarrok. Isidro eta Anttoniren semeari ongi-etorria eman nahi nioke lerro hauen bidez.

Azkenik, ez nuke amaitu nahi Noauari zerbait esan gabe. Lehen esan nuen bezala, herri aldizkaria izanda herriko eltzean egosten den informazioa agertzea ezinbestekotzat jotzen dut. Honekin batera, azkenengo alean Usurbilgo sagardotegi guztiak Aginagan azaltzea ere aipatzekoa da. Bagenekien lehen ere aginagarrak diru askoren fama dutela baina harritu naiz sagardotegi guztiak hara eramatea.



## TXOKOALDE



Iñaki  
Labaka

### Telebistan kate pribatuak ezin ikusi Txokoalden

**A**spaldi honetan egunkarrietan eta telebistan eguneroko azaltzen dira plataforma digitalaren inguruko berriak. Hainbeste ordaindu ezkerreko telebisioko kate ugari ikusteko aukera izango dugula saltzen digute. Guri kontu honek grazia egiten digu, **auzoko gehiengoak lau kate bakarrik ikusten** baititugu. Kate pribatuak **Txokalden** ez dira ikusten.

Betidanik izan ditugu **arazoak telebista ikusteko**, izan ere, mendiz inguratuta zulo batean gauden auzoa gara. Beste erremediorik ez zegoela eta **orain dela 14 urte** nahiko diru ordainduta **antena kolektibo bat** jarri genuen **Zabale gainean**. Denborarekin antena hau izorratu egin zen eta telebista ondo ikusteko gure eskaerei erantzuna emanez, Eusko Jaurlaritzak **Kukuarrin repitidore** bat jarri zuen. Honenbestez, kate publikoak ikusten ditugu baina pribatuak ez. Etxe pare batek, egoera honekin konforme ez, eta kate guztiak ikusi ahal izateko beste antena bat ezarri zuten beraiantzat. Gehiengoak, diru gehiago gastatzeko prest ez dagoenez, lehen bezala jarraitzen du.

Orain arte pelota eta futbola kate publikoetan ikusten genituen, baina orain kate pribatuak ere ematen dituzte eta **jendea haserre da**. Ikusi nahi eta ezin!. Behin baino gehiagotan madarikatu izan dugu zulo honetan bizi izana. Euskal Herrian kate guztiak ikusten ez dituen jende asko ez da izango. Hauen artean gu, zer egingo diogu ba! Noizbait garai hobeak etorriko dira bai!

## ZUBIETA



Xabier  
Arregi

### Zubietako plan partziala onartu Usurbilgo udalak

**U**rtarrilaren 28an **Usurbilgo Udalean** egindako **plenoan**, bertako udalak **Zubietako plan partziala** onartu zuen. Jadanik alde baten oneritzia badugu, baina orain itxaron egin behar. Izan ere, plan hau aurrera ateratzeko **Donostiako udalean** onartu behar da eta hemen gauza atzeratzen ari da. Donostiako udala, Diputazioak "Plan de Actuación Urbanística" delakoa onartu zain dago. Honen ondoren udalak plenoan erabaki beharko luke **Zubietako plan partzialari baiezkua eman edo ez eman**.

**Zubietarrantzat** oso **garrantzitsua da plan hau**. Hainbat urtetan ez da etxerik egin, dena geldirik egon da, eta honen izugarritzko aldaketa ekarriko luke. Pentsa ezazue oraingo **Zubieta ehun etxe** inguru gehiagorekin.

Bestalde, **Zubieta Pilota Elkar-teko** pilotariak Gipuzkoako ezker pareteko txapelketan dihardute burubelarri. Ligaxka amaitzean dago. **Finalak**, bai kadeteenak eta bai gazteenak, **martxoaren 3an** izango dira Amasan. Aipatzekoa **Zaldua eta Mariezkurrena** haundien mailan egiten ari diren papera.





# AGERIALDE

## herri ikastetxea

**97-98 ikasturterako aurre-matrikula**

**Epea: otsailak 17-28**

**Ordutegia: goizeko 9-10  
arratsaldeko 4-5**



D eredia: Haur Hezkuntzan eta  
Lehen Hezkuntzako 1. zikloan  
(1. eta 2. kurtsoan)  
eta 2. zikloan (3. kurtsoan)

B eredia: Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. zikloetan  
(4., 5. eta 6. kurtsoan)



**Tlf. 36 38 95**



## PATXI AÑORGA: "ESPETXEA AHALIK ETA MIN HAUNDIENA EGITEN SAIAZEN DA"

**P**atxi Añorga preso usurbildarra etxean da. Hiru urte eta zazpi hilabete pasa ditu Carabanchel eta Alcalá Meco espetxeetan, eta pasa den otsailaren 12an bueltatu da Usurbila.

### Nolakoa izan da kartzelako bizitza?

Hasieran Carabanchelen egon nintzen 15 egun, eta gaitzaren ondoren Alcalá Mecon pasa dut. Euskal preso politikoa-  
rentzat kartzelako bizitza gogorra da, aislamentuan gaudelako. 22 ordu ematen dituzue zuegan eta bi patioan. Ia ez duzue inorekin hitz egiten, patioan edo bisitak dituzunean ez bada. Legediak dio preso gehienez hiru hilabetetako aislamenduan eduki daitekeela.

### Eta denbora nola pasatzen zenuen?

Goiza soziologia karrera ikasteko erabiltzen nuen, ondoren arropa garbitu eta gero beste motatako irakurgaiak irakurtzen nituen, eskutitzak adibidez. Hemendik benetan esker-tu nahi diet idatzi didaten guztiei, izan ere, barruan zaude-  
nean eskutitz bat jasotzea (nahiz eta jakin irakurri egin dutela) aste baterako "pilak" jartzen dizkizu. Oso garrantzitsua da planifikazio on bat edukitzea. Barruan denbora gehiegi baitago pentsatzeko, eta hori ez da batere ona.

### Aislamenduaz gain, ze jokera du gartzelak euskal preso politikoenenganako?

Ahalik eta min haundiena

egitera joaten dira. Pertsona eta gauza guztietatik ahalik eta gehien urruntzea da beraien helburua. Psikologo eta psikiatrak badakite hori eta beraien laguntzarekin min gehiena e-maten saiatzen dira. Ea behar ez den gauza-  
ren bat egiten duzun edo. Hori, batez ere, hasieran egiten dute, mundua gainera erortzen zaizula dakitenean. Gero eguneroko bizitzan ere bai. Niri adibidez, aurtengo matrikula ez didate garaiz eman. Zure ilusioa bapatean moztea da.

### Azken gertakizunak ikusirik, nola ikusten duzu gaurko egoera duela lau urterekin konparatuz gero?

Alde batetik, ikusten dut autodeterminazio eskubidea Nazio Batuetan onartu dela, eta badirudi eskubide horren aurka inork ezin duela egin. Gure planteamentua egiazkoa zela frogatu da, gaur

egun autodeterminazioaz kalean etengabe hitz egiten da, lehen egiten ez zena. Bestetik ordea, argi ikusten dut PPren politika faxista dela. Bestela ezin da ulertu beren adierazpen askatasuna defendatzeagatik Mahai Nazionaleko kideak atxilotzea. Gobernuari oraindik ez zaio kareta erori, baina estatu frankistaren politika eta politikariak daude. Presoen hurbilketarekin ere berdin gertatzen da. Dena hipokresia hutsa da. Ez zaie inporta preso politikoen egoera larria bada ere. Espetxeak dute jokoeragatik, baita fisikoki, baldintzak oso txarrak direlako. Euskal preso gehienak IHESA, tuberkulosisa edo hepatitis dute edo izan dute.

### Orain Usurbilen zaudela berriro, zer egiteko gogo duzu?

Mendira ateratzea. Eta alabarekin galdutako denbora berreskuratzea.

### Eta zein da nabaritu duzun aldaketa haundiena?

Soinua. Barnean nengoenean irratia oso baju edukitzen nuen, eta bestela ez zegoen soinurik. Hemen, ordea, dena burrunba da, lo ere ezin dut egin etxe alboan pasatzen diren kotxeengatik. Bestetik, herriak jasan dituen aldaketak ez zaizkit haundiegiak irudituko. Alde batetik, Noaua!-ko argazkiekin mentalki irudikatzen nuelako, eta bestetik berriz, zinegotzi izan naizenez, banuelako proiektu hauen berri.

Idoia Torregarai



## TABERNA

Pintxo bereziak  
eta  
giro aparta

Irazu kalea, 9  
Tlf: 36 02 17



# Ekaitze

## Bideo eta Argazki

Usurbil

tlf 36 14 87


oiartzun

## ARITZETATIK IRUBIDERA AUTOBIDE BERRIA

**A**zken urteetan behin baino gehiagotan entzun izan dugu A-8 autopista eta N-1 errepidea lotuko dituen autobidea egitekoak zirela. Oraingo honetan oihartzuna egi bihurtu da. Martxoaren lehen egunetan hasiko dira A-8 autopistako Aritzeta atsedenekua eta Lasarte-Oria ondoko N-1 errepidea lotuko duen autobidea egiten. Lan hauek, eta autobideak berak, usurbildarregan eragina izango dute, N-634 errepidea ere autobide horrekin lotzekoak baitira.

Aritzetako atsedenekutik Lasarte-Oria bitartean egingo den autobidearen ideia asfaltitik dator eta arrazoi ezberdinen ondorioa izan dela esan dezakegu. Hasteko, hamarkada honetan N-1 errepidean gero eta ibilgailu gehiago ibiltzen dela egiaztatu da. Azken bost urteetan batzbeste %6ko hazkundera izan du errepide honen erabilerak eta momentu honetan behar baino ibilgailu gehiagok egiten du Tolosa eta Añorga arteko ibilbidea. Donostiara sartzerakoan trafiko dentsitate handia egoteaz gain, A-8, N-1 eta N-634 errepideen arteko lotura eskasak, Bilbotik Tolosa aldera, eta alderantziz, doana Añorgatik igarotzera behartzen du. Gainera kontutan izan behar da A-8 eta N-1a nazioarte mailako komunikazioan oinarri garrantzitsuak izanik Donostiako hirigunean bakarrik lotzen direla.

N-1 errepideko trafikoa arintzeko garrantzi handiko autobidea izango da **Ignacio Hernandez** proiektu egilearen ustez. "Errepide honek bi bide ezberdin erabiltzeko aukera



A-8 autopista, N-1 errepidea eta N-634 lotuko ditu Aritzeta eta Lasarte Oria bitartean eraikiko den autobide berriak. Martxoaren lehen egunetan hasi eta 1998ko azaroan amaituta egon beharko du.

*emango du. Nahi duena Añorgatik joango da, baina askoz erosoagoa izango da Aritzetatik Lasarte-Oriara, Meloien bihurgunera doan autobide hau erabiltzea". Honen esanetan, Donostia eta Irun aldetik Etxegarate bidean joan nahi duenak errepide berria erabiliko du, Goierri aldetik edo kosta aldetik Donostiara joan nahi duenaren antzera. Bestalde, Honela, %40an murriztuko litzateke trafikoa Añorga parean.*

### Bi karril norabide bakoitzean

Autobide berri hau 2785 metrokoa izango da. A-8 autopistak Aritzetan duen atsedenekuan hasi eta Irubidetik barrena, Meloien bihurgunean, N-1 errepidearekin bat egingo du. Norabide bakoitzean bi karril izango ditu 3,5 metroko zabalera. Alboetan berriz, 2,5 metroko bazterbideak. Gehienezko abiadura 80 kilometro ordukoa jarriko dute eta aldapa haundiena %6-7koa izango da.

Errepide berri hau egiteko 257.134 m<sup>2</sup> desjabetu ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak. 191.436 m<sup>2</sup> Donostiako udalerriari dagozkio, 45.823 Lasarte-Oriari eta 19.875 m<sup>2</sup> dira Usurbilgoak. Usurbilgo lurretatik autobide honen zati txiki bat besterik ez da pasako, baina zati hori oso garrantzitsua izango da. Izan ere, A-8 autopista, N-1 errepidea eta N-634aren arteko lotura usurbilgo lurretan gauzatuko da neurri handi batean, eta ez Irubiden. Kanpezo eta Iberduerok duen zentralaren artean pasako da autobide berria, N-634 errepidearen gainetik igaroko delarik. Azken errepide honek aldatuak jasango ditu Usurbilgo zatian. Irubidetik Usurbil aldera sartzean oraingo Iberdueroko bihurgunea ez da egongo, zuzen-zuzen pasako da, Luzuruagako parean mendia jango duelarik. Horrez gain, autobiderra sartzeko azelerazio eta dezelerazio karrilak egingo dituzte.



Autobidea eraikitzeke epea 20 hilabetekoa izango da. Irailean egin zuten lan hauek adjudikatzeko deialdia eta bertan aurkeztutako 12 proiektuen artean Moyua eta Murias enpresek elkarlanean aurkeztutakoa aukeratu dute azkenean. Aurrekontua, 3.000 milioi ingurukoa izango da, 2.830 milioi hain zuzen ere eta eraikuntza lanetan martxoaren hasieran has litezke. Autobide berriaren eraikuntza lanek ez dute norabide aldatuarik eragingo Usurbil eta Donostia arteko bidean. N-634 eta autobidea lotzeko lanak zatika egingo dituzte eta usurbildarrek ez dute bide alternatiborik erabili beharko.

### Lurren mugimendu haundia

Aritzeta eta Lasarte Oria bitarteko errepide berri honen eraikuntza lanek lurren mugimendu haundia suposatuko dute. Guztira 847.000 m<sup>3</sup> lur mugituko dira. Honekin batera 55.000m<sup>3</sup> material ez erabilgarria Txabarrategi baserriko zabortegira edo Urnietako Goibietakora bota beharko da. Kalte ekologikoak ere nabariak dira. Alde batetik animalia espezie ugari kalte-tuko dira, eskubiko taulan agertzen direnak hain zuzen ere. Beste aldetik, kutsadura maila ere kontuan hartzekoa da, bai lur mugimenduek eragindakoa eta bai materialen garraioarena. Honi autobidea eraikitzean ibilgailuen zirkulaziotik datorren kutsadura gaineratu behar zaio.

Zenbait baso, zelai, lantzeko lur eta fruitudun zuhaitzak dituzten lur batzuk desagertu egingo dira autobide berri honen eraikuntzarekin. Honek bada, paisaia eraldatu, ubideak aldatu eta kutsadura akustikoa gehitzea suposatuko du autobide berri honek.

1990. urtean Usurbilgo uda-

### Aritzeta eta Lasarte lotuko dituen autobidearen eraikuntzak animalia ezberdinengan eragina izango du. Hona hemen kaltetuak izango diren espezieak

#### ANFIBIOAK

Uhandre palmatua  
Txantxiku arrunta  
Apo arrunta

#### NARRAZIAK

Musker berdea  
Horma-sugandila  
Zirauna  
Suge leuna  
Eskulapioaren suga  
Suge gorbataduna  
Seoane sugegorria

#### UGAZTUNAK

Triku arrunta  
Millet satitsua  
Satiitsu arrunta  
Sator arrunta  
Untxia  
Lursagu gorria  
Satain piriniarra  
Lursagu lusitaniarra  
Larre lursagua  
Arratoi beltza  
Arratoi arrunta  
Etxe-sagua  
Azeri arrunta  
Erbinudea  
Lepazurid

#### HEGAZTIAK

Kukua  
Lepitzulia  
Enara arrunta  
Enara azpizuria  
Uda txirra  
Buztanikara zuria  
Txepetxa  
Tuntun arrunta  
Txantxangorria  
Pitxarixar burubeltza  
Zozo arrunta  
Birigarro arrunta  
Ihi-txoria  
Benarriz nabarra  
Sasi-txori arrunta  
Baso txinboa  
Txinbo kaskabeltza  
Txio arrunta  
Erregetxo bekainzuria  
Euli-txori grisa  
Buztanluzea  
Pinu kaskabeltza  
Amilotx urdina  
Kaskabeltza haundia  
Gerri-txori arrunta  
Antzandobi arrunta  
Eskinosoa  
Mika  
Etxe txolarrea  
Landa txolarrea  
Txonta arrunta  
Txirriskil arrunta  
Txorru arrunta  
Karnaba  
Txoka arrunta

lak baiezkoa eman zion Lasarten N-1 errepidea eta Aritzetan A-8 autopista lotzeko autobidearen aurreproiektuari. Hala ere, adostasuna ez zen erabateko izan. E.A., E.A.J. eta P.S.O.E-k aldeko eritzia eman zuten (7 botu) eta H.B-k aurkakoa (6 botu). **Jose Antonio Altuna** alkatearen esanetan, "errepide berriak eraikitzeke planean Andoainen hasi eta Irun alde-ra joango den errepidearen proiektua dago, bestetik Donostiko bariantearen biga-

rrren fasea ere hor zegoen... eta guri Aritzeta eta Lasarte bitarteko autobidea aurrera ateratzea gehiegikeria iruditzen zitzaigun. Izan ere autobide honen helburua N-1 errepideak Añorga parean jasaten duen saturazioa murriztea zen, eta Andoain eta Irun arteko errepide hori egin ez gero askoz ibilgailu gutxiago pasako litzateke Añorga paretik. Gure ustez lehen-tasuna Urumea aldeko bide honi eman behar zitzaion".

**Josu Aranberri**

## HERRIKO EMAKUMEAK MARTXOAREN 8RAKO PRESTATZEN




**M**artxoak 8a egun berezia da emakumeentzat. Batzuk ospatu egiten dute; beste batzuk ez, baina hizketagai bihurtzen da bai komunikabideetan eta bai gure artean. Batzuk erreibindikatio kutsuarekin, beste batzuk berriz talde txikietan edo oihartzun haundiegirik gabe. Baina azkenengo **martxoaren 8ek** badute xarma berezia: **herriko emakume askoren topagune** bihurtu da eta **festa giroaz** gain, aparteko osagarriak moldatzen dituzte. **1995ean 68** bildu ziren, **iaz 82** eta aurten ere festarik ez da falta. Aurten **martxoak 8**, larunbatean, **Araeta jatetxean** bilduko dira eguerdiz eta **egun pasa 4.000 pezeta** kostako da. Parte hartu nahi duten guztiek **Laurok** edo **Lizardira** joan beharko dute "gonbidapen txartela" jasotzera.

## ADOLESZENTZIA GARAIA HIZPIDE GURASO ESKOLAK ANTOLATUTA

**A**doleszentzia: arazoa ala etorkizun proiektua gaitzat hartuta hitzaldia eskaini zuen Norbera, Izan Fundazioko **Ane Odriozolak**. Hone esanetan, "adoleszentzian, guraso eta umeen arteko erlazioa aldatu egiten da. Familiarengandik aldendu eta gizartearen erlazioan nahi du, lagunekin egon. Honela guraso eta seme-alaben artean gatazkak sortzen dira. Beraz adoleszenteari autonomia ematen jakin behar da. Konponbidea ez da autonomia osoa ematea, gazteak babestuta egon behar baitu. Baina ez bazai ematen gaztea rebeldian erortzen da eta etorkizuneari arazoak izan ditzazke". Hitzaldi hau entzutera **30 pertsona inguru** bildu ziren Udarregi zaharrean.



## PATXI AÑORGARI ONGI ETORRIA EGIN ZITZAION



**L**ehenengo **ongi-etorria otsailaren 12an** egin zitzaion **Patxi Añorga** preso-ohiari, eta **omenaldia hilaren 14an**. Dena prest zegoen **Jose Martin Sagardia** plazan omenaldia hasteko. baina izugarriko euri jasa hasi zuen.

Gauzak horrela, azkenean jendea udaletxe barrura sartu behar izan zuen eta ekitaldia arkupetan egin zen. **Dantzari** eta **bertsolarien** agurraren ondoren, herriko taldeek hartu zuten hitza: **Usurbilgo Herri Batasuna, Senideak, Amnistiaren Aldeko Batzordea, Usurbilgo LAB, Donostiako Udaletxeko LAB eta Komite enpresak** (ELA, LAB eta CCOOen izenean). **Patxi Añorga** berak ere **kartzelako egoeraren berri** eman zuen. Jarraian, **trikitilarien** txanda izan zen. Eta ondoren, **manifestazioa** egin zen herriko kaleetan zehar. Bukatzeko, **afaria** egin zen **Arratzain Sgardotegian**.

## UEMA DELA-ETA, ERAKUSKETA

Udaleko Euskara-ren Aholku Batzordearen ekimenez **Usurbilgo udalerrria UEMAn** (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea) **sartzeko prozesuak aurrera darrai**. Oraingoan, **Usurbilen** euskararen egoera azaltzeko eta UEMaren helburuak ezagutarazteko **erakusketa mugikor bat** antolatu du. Erakusketa hau **auzo-auzo** ibiliko da, baita baita aste batez. Erakusketa hainbat kultur ekitaldirekin osatuko da; hauek erakusketa dagoen auzoan burutuko dira, erakusketak iraungo duen asteko egunen batean. **Lehen txanda Aginagari** egokitu zaio; erakusketa bertan izango da **martxoaren 3tik 9ra**, eta oraindik zehazteko badago ere, aste



**G**arraiolarien grebak **Usurbilen** ere eragina izan duela, bai horixe. Herriko dendek ez dute betiko itxura, produktuak eskuratzeko inoiz baino arazo gehiago dituzte. Irudietan ikusten den bezala **apalak husten hasiak** dira **garraiolariek** otsailaren 6an hasi zuten **grebaren ondorioz**. Zenbait lantegietako langileak, berriz, lanik gabe gelditu dira, beharrezko duten materialaren faltan. Eta hori gutxi balitz, **frontoiko lanak geldituta**. Estalki zaharra kendu zioten baina greba honek berria jartzea atzera dezake.

horretan abeslari baten kantaldia entzuteko para izango dute aginagarrek.

### ANDATZPE-PEÑA PAGOLAREN PORRA

**Feliziano Fernandez** eta **Eugenio Noriegak** irabazi dute **Andatzpe-Peña Pagolako pilota**

**batzordeak** antolatutako eskuz binakako txapelketaren porra. Beste batek, **Jose Martinek** asmatu zuen, eta zozketa egin ondoren aurrez aipatutako biei egokitu zaie saria. Hone-la, **Feliziano Fernandezek** **Illunbe sagardotegian** bi afariz

gozatzeko aukera izango du eta **Eugenio Noriegak** berdin **Saizarren**.

### EZ OHIZKO PLENOA OTSAILAREN 18AN

Herri Batasunako **Mahai Nazionalaren gartzeleratzea dela eta**, alderdi berak joan den otsailaren 18an aurkeztutako **mozioa onartu zuen Usurbilgo udalak H.B.-ko zazpi zinegotzien eta Izaskun Maiz** independentearen botuekin. **E.A.J.** eta **E.A.-ko** zinegotziak ez ziren azaldu. Hone-la bada, udalak **H.B.-ko Mahai Nazionalaren gartzeleratzea** salatu eta bere **kide guztiak aske uztea** eskatzen du; Espainiar estatuari Euskal Herriaren eskubideen onarpenaz **elkarrizketaren bideari ekin** diezaion deialdia egiten dio. Erabaki hauen berri espainiar Gobernuari eta espainiar estatuaren Epaitegi Gorenari igorriko zaio.



**E**z dirudi baina diapositiba emanaldi batean daude. Ezkerretan dagoena **Joseba Iribar** duzue. Berak, diapositibaz lagunduta **lera txakurrez** hitzegin zuen joan den otsailaren 12an Udarregi zaharrean. **Andatza K.K. E-ak** antolatutako ekitaldi honetan bera trineoaren gidari izanik bere txakur taldearekin baso artiko, izoztutako uinu eta beste lekuetan izandako esperientziak azaldu zituen. Momentu honetan 16 husky ditu zetuarrak eta **Alaskara** joateko prestatzen ari da.



**U**darregi ikastolako haurrek biziki gozatu zizuten ihauteriak. Ostiralean, otsailaren 7an, goizez **Oiardo kiroldogian jende ugari** bildu zen ikastolako haurrek eskainitako **euskal dantzak ikusten**. Ondoren, **arratsaldean**, goi-zikloko umeek taldeka **ikuskitan bereziak** taularatu zituzten. Antzerkiak, dantza ekitaldiak, abeslariak... mota guztietako ekintzak ikusi ahal izan zituen Udarregin bildu zen jendeak. Eta ekitaldia hasteko, **Goenkaleko atal berri bat** irakasleen eskutik.



## KIROL KOPLA



**Gorka Aierbe**

**L**ehengo batean hainbat lizen etorri zitzaizkidan burura. Horien artean **Pako Alkorta, Iñaki Zugasti, Joxe Granados...** eta beste hainbat. Zer dute denek amankomunean horrenbeste urte igaro arren nire oroimenean jarraitzeko? Denak nire garaian, ni bezalako haurrekin aritzen ziren entrenatzaile modura.

Urteak igaro arren, ezin ahaztu bereaiekin igarotako momentuak, istorioak, aholkuak... Niri iruditu ez arren, eragin handia izan dute neure bizitzan eta beste hainbat haurren bizitzan. Era batera edo bestera, nahita edo nahi gabe, nire hezitzaile izan dira eta horregatik guztiz eskertuta nago.

Orduan bezala, gaur ere hainbat eta hainbat entrenatzaile-hezitzaile ditugu gure herrian. Askotan gurasoengatik kritikatuak, bestetan haurrengatik, baina beren lana ezin hobeto betetzen dute. Horregatik, nire lerro hauek, hor izkutuan, gure haurrengatik lanean diharduten hainbat gazte eta helduei zuzentzen dizkiet.

Nere etxean "esker onekoa ez denak ez duela fitsik ere balio" entzun izan dut. Horregatik, doazkie nere zorianik beroenak hor isilean lanean aritu zaren eta zabilzaten guztiei. Ea behin-goan zuen lana aintzat hartzen den. Segi horrela!

## YON CARBAYEDA: "Aurten edo inoiz ez"

**Afizionatu mailako txirrindulariek laister batean ekingo diete errepedeko laisterketei. Tartean bi usurbildar: Haimar Zubeldia eta Jon Carbayedea. Guk azken honekin hitzegin dugu. Elite mailan arituko da Kafe Baque taldean eta martxoaren 2an Laudion ekingo dio denboraldi berri honi.**

### Zer asmo dituzu 1997ko denboraldi honetarako?

Itzuli haundietan ondo ibiltzea, aurreko postuetan sartzea da nire helburu nagusia. Aurreko urteetakoa ikusita Circuito Montañes oso ondo datorkit niri, eta hemen zerbait aipagarria egin nahiko nuke. Itzuli hau gogorra izaten da, aldapa askorekin, niri gustatzen zaidan bezala.

### Nolako prestakuntza daramazu aurten?

Serioski entrenatzen azaroan hasi nintzen eta orain arte 6000 kilometro inguru egin ditut. Beste urtetan gehiago egin izan ditut baina intentsitate gutxiagoz, izan ere aurten serie asko egiten ari naiz, azkarrago joanaz. Niri asko kostatzen zait erritmoa hartzea, horregatik denboraldia hasterako kilometro asko egiten ditut bizikleta gainean.

### Egunero, egunero hor ikusten zaitugu entrenatzera joaten. Zer ibilbide egiten duzu?

Normalean kosta aldeko errepedetan ibiltzen naiz. Usurbil, Itzizar, ondoren Bergara, Tolosa aldetik berriz itzultzeko. Aiara ere askotan joaten naiz. Batazbeste egunean 100 kilometro egiten ditut.

### Hotza ere pasak duzu ba.

Nahi baino gehiago. Hotza eta euria ez ditut gogoko, muskulua gogortu egiten zaizkit. Horregatik denboraldi hasieran forman jartzea asko kostatzen zait.

### Nola ikusten duzu profesionaletarako bidea?

Oso zaila da profesionaletara pasatzea. Orain dela bi urte denboraldi ona egin nuen. Ondorioz mailaz igotzeko aukerak banituen. Bospasei geunden hor eta azkenean bi edo hiru bakarrik igo ziren. Orain berriz, talde gutxiago daude eta gora oso txirrindulari gutxi pasatzen dituzte.

### Eta aurten profesionaletara ez bazara igotzen?

Hori horrela izanda datorren urtean errepedeko laisterketak alde batera utzi eta ziklo kross edo Mountain Bikean aritu naiz zihurrenik. Ez dut orain arte bezala entrenatzen jarraitzeko asmorik.

### Txirrindularitza gogorra al da?

Niretzat bai. Azkenean ohitu egiten zara, baina sakrifizio handia eskatzen du. Entrenamendu asko, janaria begiratu egin behar, pisuan mantendu behar... gogorra egiten da.



**Igandetan ganba-ziri mundialak!**




**LABE-TXIKI**

**Labetik ateratako  
ogi berri-berria  
zure eskuetan**

Kale Nagusia, 2  
Tif 37 33 48  
37 09 13  
USURBIL

## AITZAGA ELKARTEA: Taberna baino gehiago



**O**rain dela ia lau urte ireki ziren Aitzaga Elkarteak ateak eta herriko erreferentzia gune bihurtu da. Guztiok eza-gutzen ditugu taberna eta "soziedadea". Baina horrez gain, urtean zehar hainbat ekitaldi, jaialdi, ikastaro eta erakusketa ere antolatzen ditu herritarrontzat.

Aitzaga Elkarteak 115 bazkideen artean kultur talde bat dago. Joseba Berriozar, Lontxo Zubiria eta Jose Mari Irazustak osatzen dute. Hauen lanari esker sortzen dira Aitzagako petola txapelketak edota tabernako erakusketak. Urtean zehar hainbat ekitaldi prestatzen dituzte. Jose Mari Irazustak dioenez "urtero antzeko ekitaldiak antolatzen ditugu. Nahiko mugatuak dira, baina hiru pertsona gaudenez, ezin da askoz gehiago eskatu".

Laugarren urte honetan ez da gauza berri askorik izango, baina aurreko urteetan arrakasta eta erantzun ona izan duten ekintzak berrindartuko dituztela iragarri digu Jose Mari. Horien artean, herriko artisaunen azoka. "Herritarren lana ezagutarazteko helburuz hasi ginen azoka honekin, eta geroztik lan eskariak hazi egin zaizkiela komentatu izan digute". Hala ere, aurtengo beste pauso bat emango da eta eskualdeko artisaunak ekarriko dira. Azokaren eguna finkatu gabe baldin badago

ere, Santu guztien egunean edo Eguberritan izango da".

### Argazkien "gantxo"

Kultur talde honek bultzatu nahi duen beste ekintza bat tabernako erakusketena da. "Orain arte egindako argazki erakusketek arrakasta handia izan dute. Argazki zaharrek "gantxo" berezia dute eta jendeak asko estimatzen ditu. Kopiak eskatuz ere jende asko etorri zaigu". Ikusi bai, baina utzi... hori zailagoa dela dio Jose Mari. "Jendea oraindik ez da ohitu argazkiak ematera, beti tiraka jardun behar izaten dugu". Beraz, badakizue...

Aitzagako erakusketak ez dira, ordea, argazkietara bakarrik mugatzen. "Herritarrentzat interesgarriak izan litezken gaien inguruan ere egiten ditugu. Adibidez, frontoiko estalkiaren proiektuarena egin genuen". Izan ere, horrelako gauzak ikusteko kultur etxeetara joateko ohiturarik ez dugunez, tabernan "ilustratzeko" aukera ematen

digute erakusketok.

### Eperra ikastolari lagunduz

Aurtengo ekintza berezi eta garrantzitsua Eperra ikastolari laguntzeko izango da. Mauleko ikastolako guraso eta irakasleek eraikuntza berri bat egin behar dute Sohüta herrixkan. Hori dela eta, kanpaina bat hasi dute Euskal Herri mailan dirua lortzeko. "Guk, Usurbilgo herri bezala, diru kopuru bat lortu genezakeela pentsatu genuen" dio Jose Mari. "Horretarako, egoera ezagutarazi behar da eta lan hori hartu dugu geure gain. Batzorde bat sortu dugu eta herriko taldeengana zuzenduko gara". Arazoa eta egoera azaltzea eta diru laguntza bat lortzea izango dira batzorde honen zereginak.

Aitzaga Elkartea oraindik fresko-fresko eta gauzak egiteko gogoz dago. Baina beti ere gauza bat kontuan hartuz: herritarrontzat eta herritarrokin egiten dutela lan.

Ainhoa Azpiroz



1996ko eskulangintza azoka eta erakusketa

# MAHUKA



GAZTE DENDA

Orain, neguko merkealdia

Etxebeste kalea,3 - Tlf. 36 11 06



# TXIRIBOGA

TABERNA

pintxoak eta bokatak

Irazu kalea, 3 - Tlf. 37 00 13

## NOTARITZAK, ERREGISTROAK ETA ARTEKARIAK

**10/1982 Euskararen Erabilpen Arautzeko Legeak, dagoeneko 14 urte beteak ditu indarrean, baina Notaritzak, Erregistro eta Artekari arloetan oraindik berau sortu gabe balego bezala jokatu da. Bada garaia euskaldunok arlo hauetan ere gure eskubideak eskatzen eta betearazten has-teko.**

Arestian aipatutako lege hori EAEko herritar guztientzat egin zen gure hizkuntzaren normalizazio eta defentsarako. Artikulo piloa dago hori adierazten dutenak, baina Administrazioa eta Erakunde publiko gehienek ez dute atsegin lege hori eta oztopatu egiten dute; batez ere Notaritzak, Erregistro eta Artekariak.

### Notaritzak

Donostia aldeko Notaritzak batzuekin eta bertako administrazioekin euskaraz hitz egin dezakegu, baina ez ordea Notarioekin, ez baitakite gure hizkuntza. Paperik xumeena euskaraz betetzeko gauza ere ez dira. Berdina esan dezakegu Artekaritzak eta Erregistro publikoei buruz.

Legeak 14 urte dituen arren, ez dira kezkatu ez arduratu lege horretara moldatzen; eta gainera, ez dute nahi izan ere. Gu geure etxean arrotz sentiarazi nahi gaituzte eta beraiek berriz jaun eta jabe.

Baina, euskaldunok eskubide osoa dugu gure dokumentu

eta txostenak euskaraz egina-razteko. Zer egin orduan? Nola jokatu? Ba, euskaraz egin ditzaten eskatu eta gai ez diren bitartean, euskaraz egiten dituzten lekuetara jo. Donostian, adibidez, **Pedro Baraibar Notarioak** edozein dokumentu (eskritura, ziurtagiri edota beste edozein txosten publiko) euskaraz egiten ditu inolako arazorik gabe.

### Erregistroak

Estatu Espainolak, armada-ekin batera, Erregistroak ditu bere bizkarrezur. Izan ere, horietan baititu bere menpeko pertsona edo ondasunen inbentario guztiak. Legeak berak agintzen duenaren arabera, euskaraz egindako dokumentuak euskaraz erregistratu behar dira.

Erregistro horietan ordea, aurpegi desberdinak jartzen dituzte erregistratzailearen arabera. Adibidez, hiritar euskaldun bati ukatzen diena abokatu euskaldunei ez diete ukatzen ezetzarengatik auziperatu egingo dituztela esaterakoan. Beraz, hoberik ezean, hori izango da egokiena:

### Gipuzko-ako Abokatu

**Elkargora** deitu eta bertako Euskara-batzordeko abokatu-ekin harremanetan jartzea lagun gaitzaten.

### Artekariak

Kutxa, Banketxe eta gisakoetan egiten diren mailegu-eragiketa, hipoteka eta antzekoetan fede-emaila dira eta

notarioen pareko eginkizuna dute arlo honetan.

Hauetako ere, gehiengoak behintzat, ez dute euskara gogoko. Kopetilan jartzen dira berehalaxe euskararen usaina somatzean. Horien aurrean ere abokatuak presentziak konpon lezake arazoa, eta hauxe iruditzen zaigu biderik egokiena, behingoz euskaldunon eskubidea eta legea betetzen has daitezten.

Argi eta garbi ikusten da berriro ere, euskaldunon eskubideak lortzeko zenbateraino ahalegindu behar dugun; tantaka-tantaka ari gara lortzen atsedenik gabe saiatuz eta etengabe ekinez. 14 urte pasa dira euskararen erabileraren arautzeko lege famatua egin eta onartu zela, eta hala ere, kanpoko lokatza baikinak zapaldu nahi gaituzte; besteren lotsak gorri arazten gaituzte zenbaitetan.

Noizbait egingo al gara, geure eskubideen jabe; geure herriaren jabe.

**Xabier Pikabea**

### Pedro Baraibar Notaritzak:

Alkartasunaren hiribidea 2-1. Donostia. Telf.: 43 18 72.

### Gipuzkoako Abokatu

**Elkargoa:** Telf.: 46 70 37 edo 27 08 98.

Beste argibiderik nahi izanez gero, Udaletxera jo dezakezu **Lurdes Zubeldiaren** galdera eginez edota Udaletxeko **37 19 51** telefonora deituz.



ZUMET A  
JATETXEA

Txoko alde, Tel.: 36 27 13

KAR TA BEREZIAK

Jaietaaste,  
bazkariaketaafariak  
2.000 pta.

Berebiziko "Menu Zumeta"  
3.200 pta.

Zuenzaingeratzengara!

# MENDIGAIN INMOBILIARIA

**Eguzkitzako etxebizitzak,  
lokalak eta garajeak**

Palazio, 28-1,  
Donostia 20.008

Tlf 21 79 86



Argazki honetan Usurbilgo **erretoki** zaharra ikusten dugu, Arratzain bidean zegoen hura. Kaloriak erre, ez dakigu erreko dituzun, baina batzuk irabazi nahi badituzu **Tragoxka** taberna-ko afari batekin esaiguzu:

**Nork egin zuen erretoki hau?**

**Eta noiz itzali zen?**



"Inoiz ez zait ezer ere egokitu!" komentatzen zigun **Aitziber Lanberrik**.

Eta hara! azkenean **Noaua!**ko lehiaketan izan du zortea. Aginagako **Sekaña** jatetxean afari goxo bat egiteko aukera aprobeatzatzeko moduan zara, **Aitziber!**

lhauterietako argazkian ateratzen zirenak, hauek ziren (goitik hasita, eta ezkerretik eskubira): **Mari Karmen Blasco, Ana Beristain, Joxe Mari Iribar, Aitor Arruti, Juan Angel Arzallus, Juanjo Lertxundi, Jon Portu, Luis Mari Ormaetxea, Luis Mari Aizpurua, Xabier Udabe, Rosa Barcenilla, Joxe Ramon Arruti, Mari Asun Yurrita, Napoleon Lertxundi, Nekane Aisa, Iñaki Torregarai, Mari Jose Olano, Idoia Arrona, Andoni Atxega, Mikel Urkia, Yolanda Donis, Lurdes Plaza eta Jokin Salsamendi.**

Eta **Zumeta**ko afariaren irabazlearen izena: **Araitz Maeztu** da.

komikia



Nagore Leoz

**TABERNA**

**TRAGOXKA**

**BAZKARIAK  
ETA AFARIAK**

Santuenea 23  
Tlf. 36 27 34

Aginaga  
36 27 33

**SEKAÑA**

BEREZITASUNAK  
Txerrikumea,  
Tuleta eta Arraia

**ORBELDI**

**MARKEL OLAIZOLA**  
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009

**GENERALI**  
Aseguru Konpainia

**Mota guztietako Aseguroak zure zerbitzurako**

Aritzeta, 1 Tlf: (943) 37 18 07  
20170 Usurbil (Gipuzkoa)

# A genda

## OTSAILAK 23 igandea

- **Andatza K.E.ak iraupeneko eski irteera** antolatu du Iratira. Elurrik ez balego, Orhy mendira igoko lirateke. Eskiak bertan alokatuko dira. **Irteera** goizeko **6.00etan, frontoi atzean.**

## OTSAILAK 24 astelehena

- **Euskal Herria Askatu!**ren konzentrazioa errotondan. Arratsaldeko **20.00etan.**

## OTSAILAK 27 osteguna

- **Usurbilgo Korrika 10 batzordea** jadanik eratu da. Hala ere, batzorde honek gaur egingo duen bilerara etortzeko gonbidatzen dizuete. **Etumeta Euskaltegian,** arratsaldeko **19.00etan.**

## OTSAILAK 28 ostirala

- **SENIDEAK**en manifestazioa. Arratsaldeko **20.00etan.**

## MARTXOAK 3 astelehena

- **Euskal Herria Askatu!**ren konzentrazioa errotondan. Arratsaldeko **20.00etan.**

## OHARRAK

- ✓ **Martxoak 2an, emakumeok** zita bat dugu kirolarekin. Donostian **emakumeen VIII. Lilaton lasterketa** egingo da. **Martxoaren 8an** emakumearen eguna ospatzeko egiten den ekintza da. Bertan parte hartu nahi dutenek **Urdaneta kaleko 13ra** hurbildu beharko dute Emakumearen Zerbitzua bulegora **otsailaren 24tik**

**Bota Punttuba** bertso eskolak **bertso-afaria** antolatu du **otsailaren 22rako.** Bertan, Joxe Agirre eta Aitor Mendiluzek parte hartuko dute. **Afaria, Mahaspildegik elkartean** egingo da, arratsaldeko **20.00etan.**



**28ra** bitartean. Edo bestela, lasterketaren egun bertan **Donostiako Udaletxean,** goizeko **8.00etatik 10etara.** Hiru kategoria egongo dira: juniorrak (14-18 urte), seniorrak (19-39) eta helduak (40 urtetik gora). **Usurbildik taldean** joateko animatzen baldin bazara, agertu zaitez **Zumartegi poligonora** arratsaldeko **19.15etatik** aurrera entrenatzera.

- ✓ **Martxoaren 3tik hasi eta 9 bitartean, UEMA** zer den hobeto ezagutzeko **erakusketa ibiltaria** ikusteko aukera izango dugu **Aginagan.** Asteazken zehar **Arrate Zahar egoitzan** kultur ekitaldiren bat (abeslaria, ipuin kontalaria edo magoa) ospatuko da.

## LAN ESKAINTZAK

- **Belauntzako Udala.** Udal- liburutegirako arduradun eta **Kultur eta Kirol-sustatzaille** bat behar da. Eskariak aurkezteko **epea: 1997-II-27.** Informazio gehiago Gipuzkoako **G.A.O.ko 24.** zenbakian. Edo **Belauntzako Udaletxean.**
- **Lezoko Udala.** **Administratzaile-laguntzailer** bat behar da. Eskariak aurkezteko **epea: 1997-II-21.** Informazio gehiago Gipuzkoako **G.A.O.ko 20.** zenbakian. Edo **Lezoko udaletxean.**
- **Kamioia salgai.** Horrekin batera **lanbidea erakutsiko** nuke. Interesatuak idatzi **68. posta kutxatilara.**

## BAZKIDE TXARTEA

5000 PEZETA URTE OSORAKO

Izena: \_\_\_\_\_  
 1.Abizena: \_\_\_\_\_  
 2.Abizena: \_\_\_\_\_  
 Helbidea: \_\_\_\_\_  
 Herria: \_\_\_\_\_  
 Tfnoa: \_\_\_\_\_  
 Kontu Korrontea (20 digito): \_\_\_\_\_



## OTSAILAK 22 larunbata

- **Joko Garbiko** Gipuzkoako Txapelketa jokatu da kadete mailan: **Behar Zana 2** (Bengoetxea- Ibarzabal)- **Zubieta 1** (Rezola- Aroztegi), **Amasako** frontoian.
- **Joko Garbiko** Gipuzkoako Txapelketa jokatu da kadete mailan: **Zubieta 2** (Iparragirre- Olaizola)- **Behar Zana 1** (Orue- Goikoetxea), **Ama-sako** frontoian.
- **Joko Garbiko** senior eta jubeniil mailako Gipuzkoako Txapeletaren **finalerdiak** jokatu dira **Amasako** eta **Amañako** frontoietan.
- kadete mailako **eskubalo**i partidua (N): **Usurbil K.E.- Pulpo**. Oiaro kiroldegian. Arratsaldeko **16.00**etan.
- Jubeniil mailako **eskubalo**i partidua (N): **Usurbil K.E.- Elgoibar**. Oiaro kiroldegian. Arratsaldeko **18.00**etan.
- kadete mailako **eskubalo**i partidua (M): **Ereintza- Usurbil K.E.**
- Jubeniil mailako **eskubalo**i

partidua (M): **Ereintza- Usurbil K.E.**

- Bigarren nazionaleko **esku- balo**i partidua (M): **Zarautz- Usurbil K.E.**

## OTSAILAK 23 igandea

- Senior mailako **saskibalo**i partidua (M): **Mundarro S.B.T.-Usurbil S. T**
- Regional mailako **futbol** partidua (M): **Lagun Artea- Usurbil**.

## OTSAILAK 26 asteazkena

- **Joko Garbiko** Gipuzkoako Txapelketa jokatu da kadete mailan : **Zubieta 3** (Arrozpide- Aizpurua)- **Behar Zana 2**. **Amasako** frontoian.
- **Joko Garbiko** Gipuzkoako Txapelketa jokatu da kadete mailan: **Zubieta 1- Zubieta 2**. **Amasako** frontoian.

## MARTXOAK 1 larunbata

- **Joko Garbiko** senior, jubeniil eta kadete mailako Gipuzkoako Txapelketaren **finala** jokatu da **Amasako** frontoian.

- Kadete mailako **eskubalo**i partidua jokatu da (N): **Elgoibar- Usurbil K.E.**
- Jubeniil mailako **eskubalo**i partidua jokatu da (N): **Urnietako- Usurbil K.E.**
- Kadete mailako **eskubalo**i partidua (M): **Usurbil K.E.- Trapaga**. Oiaro kiroldegian jokatu da. **Arratsaldeko 16.00**etan.
- Jubeniil mailako **eskubalo**i partidua (M): **Usurbil K.E.- Trapaga**. Oiaro kiroldegian jokatu da. Arratsaldeko **17.30**etan.
- Bigarren nazionaleko **esku- balo**i partidua (M): **Usurbil K.E.- Urduliz**. Oiaro kiroldegian jokatu da. Arratsaldeko **19.00**etan.

## MARTXOAK 2 igandea

- Kadete mailako **futbol** partidua jokatu da (M): **Usurbil- Sp. Herrera**.
- Senior mailako **saskibalo**i partidua jokatu da Oiaro Kiroldegian **11.00**etan.: **Goierri A- Usurbil S.T.**

# BARATZA FRUTADENDA



Eguner okofruituetabarazkiak  
Janaridendako aukerazabala

*Eskaintza berezia!*

**Bi ogi 110 pezeta**

**Eguzkitza, 4 USURBIL Tlf. 36 49 81**





# Udarregi Ikastola



2tik 16  
urtetara

Haur Hezkuntza  
(2-6 urte)

Lehen Hezkuntza  
(6-12 urte)

Derrigorrezko  
Bigarren Hezkuntza  
(12-16 urte)



Matrikulazio  
epea :

**otsailaren 18tik  
martxoaren 4ra**



36 12 16